

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ITSASONDOKO UDALA*Iragarkia*

Itsasondoko Udalak 2019ko apirilaren 1eko erabakiaren bidez Urkiko aterpearen erabilera arautzeko arautegia onartu zuen. Aipatu araudia jendaurrean egon ondoren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez denez, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikulua c) azpitalaren azken paragrafoan zehaztutakoaren arabera, zeinari apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehigarri batzuk erantsi dizkion, Udaltzako hartutako hasierako onarpena, orain behin-betiko bilakatu da. Hori horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70-2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, Ordenantza horren testu oso-oso argitaratzen da.

Itsasondo, 2019ko ekainaren 25a.—Alkatea. (4262)

Urkiko aterpea erabiltzeko arauak

Itsasondoko Udalak, Urkiko Elkartearen laguntzarekin, auzo honetako plazan dagoen aterpea talde desberdinak erabiltzeko moduan izateko prestatu du.

Eskola-eraikuntzak sukualdea, jangela-egongela etan komuna ditu eta aldameneko frontoi itxian gaua pasatzeko 20 hamaka jartzeko modua egin da. Hamaka hauek gauean jarri eta goizean erretiratzeko moduan jartzen dira.

Erabilera urte osoan egin daiteke eta talde bakoitzak 15 egun arteko egonaldiako baimena eskatu ahal izango du.

Aterpearen erabilerarako, Itsasondoko herritarrek lehentasuna izango dute eta, hauen artean, Urkiko Elkarteko kideak.

Lehentasun hori gauatzeko, izen-ematea, gutxienez eskatuko den lehen eguna baino hilabete lehenago egin beharko da eta 30 eguneko aurrerapen horrekin herritarren eskaerarik ez balego, edonoren baimen eskaerari erantzuna eskaera dataren arabera emango da.

* Baldintzak:

— Gau bakoitzeko prezioa: 25 €.

— Fidantza: 100 €.

— Gehienez, 20 lagunentzako lekua dago. Gehiago behar izanez gero, aldamenean akanpatu daiteke.

Egonaldiaren ordainketa eta fidantza jartzea giltza jasotzean egingo da. Fidantza honekin ordainduko dira sor litezkeen kalteak, garbitasun gastuak eta erabilitako egurra.

Giltzarekin batera behar diren xehetasunak emango dira.

Talde bakoitzak sortzen duen zaborra (beira, ontziak, organiko...) berarekin jaitsi beharko du.

Egonaldiaren ondoren, aterpea libre utzi beharko da eguerdiko 12:00etarako eta giltza itzuli.

Talde aldaketa dagoen bakoitzean Udaleko teknikoei aterpearen egoera eta baldintza egokietan utzi dela ziurtatuko dute eta horren arabera bueltatuko da jarriritako fidantza.

AYUNTAMIENTO DE ITSASONDO*Anuncio*

El Ayuntamiento de Itsasondo, en virtud del acuerdo adoptado el 1 de abril de 2019, aprobó la normativa de uso del Refugio de Urkia. No habiéndose presentado reclamación o sugerencia alguna tras la exposición pública de dicha normativa, al amparo de lo dispuesto en el párrafo final de la letra c) del artículo 49 de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las bases del régimen local, modificada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, el acuerdo de aprobación inicial adoptado por el Pleno del Ayuntamiento deviene en definitivo. Por dicho motivo, y a los efectos previstos en el artículo 70-2 de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las bases del régimen local, se procede a la publicación del texto íntegro de dicha Ordenanza.

Itsasondo, a 25 de junio de 2019.—El alcalde. (4262)

Normas de uso del refugio de Urkia

El Ayuntamiento de Itsasondo, con la colaboración de Urkiko Elkartea, ha acondicionado el refugio situado en la plaza de este barrio para su uso por diferentes grupos.

La construcción escolar dispone de cocina, salón-comedor y baño, y se ha acondicionado el frontón cerrado adyacente para disponer de 20 hamacas para pernoctar, que se instalan por la noche y se retiran por la mañana.

El refugio puede ser usado durante todo el año y cada grupo podrá solicitar un permiso de estancia de hasta 15 días.

Para el uso del albergue tendrán prioridad los vecinos de Itsasondo y, entre ellos, los miembros de Urkiko Elkartea.

En atención a dicha prioridad, toda solicitud deberá realizarse con un mes de antelación al primer día de uso solicitado, y si no existe solicitud de algún vecino o vecina con dicha antelación de 30 días, se responderá a las solicitudes que se presenten en función de su fecha de solicitud.

* Condiciones:

— Precio por noche: 25 €.

— Fianza: 100 €.

— Aforo máximo: 20 personas. En caso de necesidad, se puede acampar al lado.

El pago de la estancia y la fianza se realizará al recibir la llave. Con esta fianza se abonarán, en su caso, los daños y gastos de limpieza generados o la madera utilizada.

Con la llave se darán los detalles necesarios.

Cada grupo deberá bajar la basura que genere (vidrio, envases, orgánico).

Finalizada la estancia deberán dejar libre el refugio para las doce del mediodía y devolver la llave.

En cada cambio de grupo, los técnicos municipales comprobarán que se ha dejado el albergue en el debido estado y condiciones, y se devolverá la fianza en función de ello.